



TURISMO-ENPRESEN MODERNIZAZIOARI LAGUNTZEKO PROGRAMA (2017)

EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

Onuradunak

- Eskabide hau aurkeztean euskal turismoaren sektorean ari diren pertsona fisikoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta enpresak (mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak), betiere beraien jarduera honako talde hauetako batean kokatuta badago:
 - Turismo-alojamenduak
 - Jatetxeak, tabernak, kafetegiak eta antzeko establezimenduak.
 - Bidaia-agentziak.
 - Turismo-garraioko enpresak.
 - Turismo aktiboko enpresak.
 - Kongresuak antolatzen dituzten enpresa profesionalak.
 - Turismo-giden enpresak.
- Upategiak, sagardotegiak eta txakolin-upategiak, bisitagarriak baldin badira (Espainiako Turismoko Kalitatearen Q marka lortzeko eta/edo berritzeko).

Azpimarratu behar da goian aipaturiko entiteek eskabidea aurkezten dutenean, Euskal Autonomia Erkidegoan egin behar dutela jarduera.

Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Laguntzak eskabideak aurkeztutako datan **jadanik burutu diren inbertsioak** finantzatzera bideratuko dira, hain zuzen ere, honako mota honetako inbertsioak:

- Ekimen berritzaileak turismoaren sektorean.
 - **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) oinarritutako soluzioen** ezarpena, negozioaren eraginkortasuna eta kudeaketa hobetzeko; baita turismo-produktu eta zerbitzuen sustapena eta merkaturatzea ere, horretarako web 2.0 teknologia erabiliz. Gutxienerako inbertsioa: 3.000 €..
 - **Turismo-ostatueta hari gabeko sarearen hedapena edo hobekuntza**, beren instalazioei egokitua, eta establezimenduko edozein lekutatik doako kalitateko zerbitzua eskaintzea ahalbidetuko duena, baita mugikor libreen gehitzea bereganatuko duena ere. Gutxienerako inbertsioa: 3.000 €.
 - **Turismo-negozioen eredu berriak sortzea, bai eta lehendik direnak espezializatzea ere**; horiei esker, turismoaren arloko produktu eta zerbitzu berriak eta/edo esperientzia jasangarriak sortuko dira Euskadin ahalmen handia duten turismo-sektoreetan edo goraka ari diren merkatu-nitxoetan, betiere natura- eta kultura-ondarea errespetatuko duen erabilera sustatuz. Gutxienerako inbertsioa: 4.000 €.
- Turismo-eskaintzaren modernizazioa, lehiakorragoa izan dadin (3 urteko antzinatea behar da gutxienez).
 - Turismo-ostatuetaarako inbertsioak, horien kategoria gehitzeko direnak, eta, orobat, uraren eta baliabide energetikoen kudeaketa efizientea hobetzeko, baldin eta onarturik badute gutxienez 30.000 euroko inbertsioa.
 - **Taberna, jatetxe, kafetegi eta antzeko establezimenduetan egindako inbertsioak, turismo-alojamenduetako jantokiko zerbitzuak barne, bertan ostatu hartzen ez duten pertsonen zuzendutako**: Makineria: elikagaiak biltegitatu, manipulatu eta prestatzea. Argiztapena. Aire-giroetza (aireztapena, hozte-sistema, berokuntza). Terrazak egokitu eta modernizatzea, urte osoan turismorako erabiltzeko. Establezimendua garbitzea: ekipamendua eskuratzea. Ekipamenduak erregulatu eta kontrolatzeko sistemak, establezimenduen efizientzia energetikoa hobetzeko direnak (gutxienerako inbertsioa: 5.000 €) eta lokalak berritu edota handitzekoak (gutxienerako inbertsioa: 75.000 €).



- **Turismo-establezimenduak indarrean dagoen irisgarritasun-araudira egokitzea**
2000ko abenduaren 12a baino lehen ireki ziren turismo-establezimenduek egin beharreko egokitzeko lanak baita ekipamenduak erosi eta instalatzekoak ere, diruz lagunduko dira helburu dutelarik Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudira egokitzea.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan dauden eta turismo sektorean lan egiten duten enpresetan eta establezimenduetan kalitate-kudeaketarako eta ingurumen-kudeaketarako sistema egiaztatgarriak ezartzea edo berritzea.** (Q de Calidad Turística, ISO 9001, ISO 14001, EMAS, Huella de Carbono, Auditoría Energética Integral).

Diru-laguntzaren zenbatekoa

- ♦ Diru-laguntzen zenbatekoak hauexek dira:
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 25, gehienez 9.000 €, ondokoa burutzeko:
 - IKTetan oinarrituriko konponbideak abian jartzeko.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 25, gehienez 15.000 €, ondokoa burutzeko:
 - Hari gabeko sarearen hedapena edo hobekuntza
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 20, gehienez 18.000 € proiektu bakoitzeko ondoko helburua duelarik:
 - Negozio turistiko berriak sortzea
 - Eskaintza turistikoa modernizatzeko inbertsioak lehiakortasuna hobetze aldera:
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 30, 15.000 euroko mugarekin, turismo-ostatuaren inbertsioetarako, horien kategoria gehitzeko direnetarako, hain justu ere.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 20, 12.000 euroko mugarekin, taberna, jatetxe eta antzeko izaerako establezimenduen inbertsioetarako, kasu hauetan izan ezik: gehieneko diru-laguntza 18.000 euroko inbertsioa duten berritzeak eta/edo handitzeak.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 30, gehienez 15.000€, inbertsioak egiteko establezimenduak irisgarritasunari buruzko araudira egokitze aldera.
 - Ingurumenaren kudeaketa eta kalitate-kudeaketa egiaztatu dezaketen ziurtagirien lorpena dirulagunduko da:
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 70, gehienez 6.600 €, Espainiako Turismo kalitatearen Q Markaren ziurtagiria. Laguntzarik eskatzen badute aholkularitza teknikoak jasotzeko eta aholkulariak inskribaturik ez badaude Turismo Kalitatearen Aholkularien Katalagoan, diru-laguntza % 45ekoa izango da eta gehienez zenbatekoa 5.500 € izango da.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 70, gehienez 6.000 €, ISO ziurtagiria lortzeko, baldin eta enpresa-mota horretarako Espainiako Turismo kalitatearen Q Markaren ziurtagiririk ez badago. Bestela, dirulaguntzaren portzentaia %45ekoa izango da, eta kopurua, gehienez, 5.500 eurokoa.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 45, gehienez 5.500 € ingurumen-kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria lortze aldera.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 45, gehienez 2.000 € Espainiako Turismo kalitatearen Q Markaren ziurtagiria eta ISO berritzeko; bigarren kasu honetan baldin eta enpresa-mota horretarako Q Markaren ziurtagiria ez badago.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 35gehienez 1.400 €, ISO ziurtagiria berritzeko, enpresa-mota horretarako Q Markaren ziurtagiria izanik.
 - Onartutako inbertsio garbiaren % 35gehienez 1.400 €, ingurumen-kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria berritzeko.
- ♦ Aurreko portzentajea % 5 areagotuko da, ezarritako gehienezkoa gainditu gabe eta enpresak ondoko ingurabarretako bat gutxienez betetzen duela egiaztatzen badu: "Berriz Enpresa" enpresaritza-transmisioaren programarekiko atximendua izatea, turismoaren sektorerako kalitate-ziurtagirietako bat izatea, Basquetour-ek garatutako jardunbide-programetako batean parte hartu izan eta gainditu izana, prestakuntza-plana



izatea edota langileen % 25ek atzerriko hizkuntzetan prestakuntza- eta kudeaketa-ikastaroetara joan izana, berdintasun edo bateratze-planen bat izatea, “Euskadi Gastronomika” edota “Surfing Euskadi” produktu-klubetako kidea edo bazkide izatea.

- ♦ Diru-laguntzen zenbatekoa establezimendu bakoitzari dagokio.
- ♦ Diruz lagun daitezkeen jarduerak baztertzailerak dira euren artean, beraz, establezimenduek mota bakarreko diru-laguntza baino ezin izango dute eskatu.

Eskabideak aurkezteko epea:

2017ko uztailaren 3ra arte edo dirua agortu arte.

2016ko maiatzaren 14tik 2017ko uztailaren 3ra bitartean egindako eta justifikatutako inbertsioak onartuko dira.

Eskabideak

Eskabidea Interneten bidez, ondoren adierazten den helbidean soilik egin daiteke :

<http://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2017/met-2017/web01-a2turism/eu/>

- Eskabidea egin ondorengo izapide guztiak, hau da, espedienteetan sartzea, errekerimenduak eta jakinarazpenak:
<http://www.euskadi.net/misggestion/>
- Ordezkaritza eman ahal izango zaio beste pertsona edo erakunde bati. Horretarako “Izapidetze Telematikorako Akreditazioa” izeneko inprimakia bete eta Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztuko da, Eusko Jaurlaritzako Turismo sailean:
http://www.euskadi.eus/r33-2733/es/contenidos/registro/sg_pg_acre_tercero_tt_emp_aut/es_sei/acreditacion_tercero_realizacion_tt_de_empr_autori.html

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak **PDF formatuan:**

Oinarrizko dokumentazioa:

- Enpresa eskatzailearen Identifikazio Fiskalaren Txartela eta eraketa-eskritura, eskatzailea “enpresaren/erakundearen” ziurtagiri batekin identifikatzen den kasuetan izan ezik.
- Pertsona eskatzailearen ordezkari-ahalordea, eskatzailea “enpresaren/erakundearen” ziurtagiri batekin identifikatzen den kasuetan izan ezik.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta eta baje egiaztagiriak.
- Eskabidearen xede den inbertsio-proiektuan sartutako aktiboen behin betiko ordainagiriak.
- Turismo-ostatuko establezimenduetan hari gabeko konektibitatea hobetzeko laguntzen eskaera egin duten enpresek hauek aurkeztu beharko dituzte: Enpresa hornitzailearen txostena, lana egin ostean establezimenduko hari gabeko sareak gutxi gorabehera guztira zenbateko estaldura-ehunekoa izango duen zehaztuta. Sarearen ziurtatzea egiaztatzen duten agiriak. Interneten sartzeko linearen operadorearen faktura, eskaera aurkeztu aurreko azken fakturazio-aldiari dagokiona; kontratatutako banda-zabalera eta teknologia zehaztuko ditu horrek.
- Irigarritasun-araudira egokitzeko laguntza eskatzen duten establezimenduek egiaztatu beharko dute establezimenduetan turismo-jarduera egiten dela 2000ko abenduaren 11 baino lehen. Halaber, teknikari gaituek sinaturiko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute araudi hori betetzen duela egiaztatze aldera.
- Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren (EIT) txostena, baldin eta laguntza-eskaera eraikin osoa turismo-jarduerarako hartzen duten establezimenduetan instalazioak, irigarritasuna eta/edo efizientzia energetikoa modernizatzeko eta hobetzeko lanak egiteko bada. Txosten hori ez da beharrezkoa izango diru-laguntza altzariak eskuratzeko edo obrarik behar ez duten laguntza teknikoak lortzeko eskatzen bada.
- ISO araudiaren arabeko, EMAS edo Karbono Azterna eta Energia Auditoretza Integralaren ziurtagiria/egiaztapena lortu edo berri nahi dutenek, hori bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.



- Ordainketarako eta banketxearen datuak, enpresaren edo onuradunaren arrazoi sozialaren datuak aldatu nahi izanez gero, informazio hori guztia ondoko kanal telematiko honetan adierazi beharko da: “Hirugarrenaren Alta” deritzon dokumentu normalizatua, ezarritako ereduaren arabera: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html.

Osagarrizko dokumentazioa, beharrezkoa balitz:

- Azalpen memoria xehatua.
- Eskabidea aurkeztu den urtearen aurreko bi urteetako abenduaren 31ko TC2, baita aurreko hilabetekoa ere.
- EAEko turismoko enpresa-elkarte bateko edota xedetzat bere eragin-eremuaren turismo-garapena duen erakunde publiko-pribatu bateko kidea dela egiaztatzen duen agiri eguneratua.
- Turismo-sektorerako kalitatearen edota ingurumen- kudeaketaren ziurtagiria.
- Enpresaren prestakuntza-plana.
- Irigarritasun unibertsala egiaztatzen duen ziurtagiria (UNE 170001-1 araua)
- Merkataritza Ganbararen ziurtagiria, “Berriz Enpresa” enpresaritza-transmisioaren programari atxiki bazaio.